


Espedizioa




■ Inguratze bidean

Ramon Olasagasti

TOURRA EZIN, BAINA GIROA (G-IIIa) BIKAINA

ARGAZKIAK: JON BELDOK



■ Porterrei ordaintzen

DENBORALDI osoa Tourrera begira prestatu, giharrak zailtzeko Giroa korritu, Italiako itzulia irabazi eta, ondoren, Tourrak ihes egiten dion txirindulariaren azalean jarri. Edo ehizera ilusio betez joan, eta, ez galeper, ez zozo, otarra perretxikoz beteta dakarren ehiztariaren larruan. Afari mokadu ederra bai, baina ehizarik batere ez. Antzeko sentsazioa zekarten Alberto Inurrategik, Jon Belokik eta Jose Carlos Tamayok, aurtengo uztailaren hondarrean, Gondogoroko lepotik Hushe bailaran behera. Ez zuten zapaldu zaharra Gasherbrum IIIko tontorra; bai, 1975an poloniarrek lehen aldiz igo zuten ez geroztik, bigarren igoera osatu zuten, -ez zen lorpen makala izan- baina itzulerako bidean, Konkordiara iritsita, ezin izan zuten saihestu G-IVko horma puskari halako begiratu etsia ematea. G-IVa zen helburu nagusia, G-IVa Tourra eta ehizatza joan zirena, eta ihes egin zien.

Aspaldidanik da Gasherbrum IVa alpinista aurreratuenen gustoko mokadua. K-2ra joan ziren aurreneko espedizioak itsututa geratu bide ziren G-IVko mendebaldeko horma puska ikusita. Itsututa. Ez zioten alferrik jarri "The Shining Wall" izena, horma distiratsua. Haren ertzei erreparatuta, ezinezkotzat jo zuten hasiera hartan. 1954an K-2 menderatu zuen espedizio italiarreko kideen artean, ordea, alpinistetako batek beste begi batzuekin begiratu zion G-IVari. Hura ere itsutu egin zen, baina



■ G-Ilko bidean bigarren kanpora bidean Banana izeneko tartean



AFIGAZIAK- ALBERTO INURRATEGI

■ G-IVan bigarren kanpora bidean italiarren serackatt an

beste modu batera. Berea da esaldia, Walter Bonattirena: "Aparteko gauzak sortzen ari zarela amesten duzunean, benetan sormen lanean ari zaren fedea duzunean, orduan, orduan baino ez, zure arimak ezinezkoaren harresiak gainditzen ditu. Sakon-sakonean beti sinestu izan dut hori". Handik lau urtera, 1958an, igo zuten Bonattik berak eta Carlo Maurik Gasherbrum IVa.

Ipar-ekialdeko ertzetik egin zuten igoera. Ausarta, konpromiso handikoa, zaila, latza. Urteen joanean, gainera, igoera haren itzala ez da batere lausotu, ez da klasiko eder bat bihurtu. Ez da museo batean alpinismoaren etnografiako pieza bezala geratu, ezta inoiz geratuko ere. Zaila da horretarako. Ia 50 urte geroago beste inor ez da igo Gasherbrum IVra ipar-ekialdeko ertzetik. Horra ardo on bat, horra proiektu erakargarri bat. Albertok apal azaldu zien asmoa BBKko arduradunei. "Gu, Bonatti eta haien aldean, bigarren mailako mendizaleak gara. 1958an igoera hura izugarria izan zen. Gaur egun, halako asmoek ez dute orduan adina meritu". Mendizaleak mailatan banatu gabe, ordea, igoera bera izan zen lehen mailakoa. Historiak frogatzen argiak aurkeztu ditu. Inurrategik, Belokik eta Tamayok, gainera, alpinista egin nahi zuten saialdia. Mende erdia ez da alferrik igaro. Proiektua janzteko, G-IIIa igotzeko asmoa azaldu zuten Alberto Inurrategik, Jose Carlos Tamayok eta Jon Belokik. 7.400 metro arte G-IIIekin bidea konpartitzen duenez, altuerako aklimatazioa osatzeko ere balioko zien.

Ekainaren hasieran abiatu ziren Pakistanera. Rawalpindin, betiko tramiteak, ohiko azken eroskerak eta denborarik galdu gabe barneratu ziren Karakorumeko zainetan. "Karakorum Highway errepidea itxita egon zen hainbat egunez, erlijio gatazkak zirela medio, eta egun bat edo beste egon ginen Skardun zain, baina azkenean arazo handirik gabe pasatu ginen". Irailaren 11z gozotik Baltistango herrietan egoera ez da gozoa izan, lana izugarri urritu baitaie, baina aurtengo denboraldian galtzak bete lan ibili dira. "Skardun bertan antzeman zitekeen mugimendua: espedizio asko K-2ra, eta



treking italiar asko ere bai". Chogoriko lehen igoeraren 50. Urteurrenak areagotu egin du aurten Karakorumeko erraldoiaren magnetismoa.

Askolen ere nabaria zen zalaparta. Espedizio goiztiarren fardoak eramanez zama-eramale asko glaziarrean gora abiatuak ziren, eta beste batzuk lana bukatuta bueltan zetozen, lan gehiagoren bila. Beldurtzen ere hasi ziren pixka bat: izango ote da nahikoa zama-eramale talde guztientzat? Bai, bazen. Inurrategik, Belokik eta Tamayok 25 kiloko 55 zama antolatu zituzten eta kanpaleku nagusirantz abiatu ziren. Urrun, oso urrun geratu da, beraz, Cassin, Bonatti eta bestek 1958an antolatutako 500 laguneko segizio zabala. Hura bai espedizio pisua.

Paiyu, Urdukas, Sharim... Aurrez ere sobera ezagutzen zituzten herrixkak atzean utzi eta ekainaren 17an heldu ziren kanpaleku nagusira. Historiaren bitxikeriak: Bonatti eta konpainia iritsi ziren egun berean. Abruzzi glaziarrean ertz batean paratu zituzten dendak, ahalik eta goren, "G-IVko behekaldea harresitzen duen serac murrailerako bidea zertxobait mozteko, eta uraren garbitasuna ziurtatzeko".

Karakorumeke ohi duen ongietorria egin zien: elurra, elurra eta elurra malo-malo. Malo-malo, bai, aurpegi zuriegia agertzen zuten mendiek, zurikerietan ibiltzeko. "Ekainaren 19an, glaziarrean aurreneko barneraldia egin eta gero, eguraldiak okerrera jo zuen. Egundetako batean hainbeste, jangelako denda handia ere bertan behera bota zigula. Lauzpabost egun egon ginen dendatik mugitu ezinik, harrapatuta", oroitu du Tamayok.

■ ARRASTO BAKARTIAK SERACATTAN

Udako solstizioarekin batera, aurpegi atseginagoa erakutsi zuen Gasherbrumeko zirkoak. Ekainaren 27an

eguzkia herabe esnatu zen mendi artetik, eta mendizaleak ere, sugandilen antzera, mendira itzuli ziren. Ekainaren 29an ekin zioten lanari: Beloki, Tamayo eta Inurrategi lehen kanpalekura igo ziren, bizkarrean armairutzarrak hartuta. Biharamonean, bi arrasto oso nabarmen bereiztu ziren: G-IIko espedizio ugarietara lorratz sakona zabaldu zuten G-IIra bidean eta, bestetik, gure hiru mendizaleak arrasto fin bakarti bat irekitzen hasi ziren G-IVko seracattara bidean. Seracatta degli italiani, italiarrek izen horrekin bataiatu zuten ipar-ekialderako leporako sarbidea oztopatzen zuen 700 metroko harresia. "Izotz eremu kaotikoa, non serac erraldoiak eta gerrirainoko elurra tartekatzen diren", deskribatu zuen Bonattik zerumuga bertikal hura. Alberto Inurrategi ere bide desorekatuaren inpresioa hartu zuen: "GIII eta G-IVA banatzen diren lepora arte oso luzea da bidea, erakargarritasun gutxikoa, arriskuko tarreak ere badira, eta, gainera, guri elur asko egokitu zitzaigun. Aldiro elur sakonetan arrastoa zabaldu beharra".

Uztaileko lehen hamabostaldian, Sanferminzaleek Jarautan gora eta behera baino buelta gehiago egin zituzten hiru espediziokideek lehen kanpalekura, eta Seracattara. Buelta eta buelta artean, ordea, elurra egiten zuen, eta harresi hartan nekez irabazi zuten metrorik, indar guztiak arrastoa irekitzen xahutzen baitzituzten. "Uztailaren 8an, uste genuen behingoz gaundituko genuela seracatta eta goiko lautadara aterako ginela. Goiz, oso goiz abiatu ginen. Bezperan zabalduetako arrastoa gogor mantentzen zen eta halaxe, nahikoa azkar iritsi ginen azkeneko harrapatutako puntura, 6.700 metrora. Egunsentiko ordurik hotzenak ziren, ordea, eta gorputz osoa dardarka genuen. Goizegi atera ginen eta arropa gehiegirik gabe. Oinak izozten ari zitzaizkigun, eta jaistea erabaki genuen. Gaur, hiru

■ G-IIko azken
500 mtan





ARGAZKIA: JON BELOKI

hilabete geroago, oraindik ere ukituta ditut behatzak egun hartatik", azaldu du Albertok.

Hurrengo saialdian hartu zuten behin betiko etsia. Uztailaren 12an abiatu ziren ostera gorantz. Aurreko egunetako lan guztia elurpean desagaturik zegoen. Beste behin. Berriro pala eta pikatxoia hartu eta zuloa zabaltzera. Lana erruz egin ondoren, heldu ziren Seracattan azkenekoz iritsitako lekura, eta han izotz bloke erraldoien artean, serac puska haien pisua hartu zuen errealtateak: "Jarrai genezakeen goraino, jarri genezakeen soka 200 metro horietan, eta hurrengo egunean itzuli gintezkeen bigarren kanpalekua ezartzera, lan hori eginda kanpaleku nagusira jaisteko. Baina argi zegoen hurrengo saialdian berriro ere elurteek ezabatu egingo zutela arrastoa, eta egunak aurrera zihoazela ikusita, G-IVan gailurreko saialdi seriorik egin gabe geratzeko arriskua genuen. Ondorioz, traste guztiak bildu eta G-IIIra bideratu genituen gure ahalegin eta aukerak". Erabakiaren zuzenaz Albertok ez du batere dudarik: "Gasherbrum IVko ipar-ekialdeko ertzean ahalegintzeko gutxienez sei eguneko tarte behar genuen gutxienez, eta, ordura arte, gehienez ere bi egun besterik ez genituen izan onak jarraian. Beraz...".

■ USTEKABEKO PANORAMA G-IIIAN

Kanpaleku nagusira jaitsi gabe, uztailaren 13an bertan, Gasherbrum IIIan gora abiatu ziren. Banana Ridge ertzean bigarren kanpalekura heldu ziren egun hartan. Gogoratu behar da Gasherbrum IIak eta IIIak bidea konpartitzen dutela 7.400 metro arte eta han, lepo batek banatzen dituela bi anaia siamesak. Ustekabeko panorama aurkitu zuen, ordea, hirukoetak ertzean: "Lepo horretara arte G-IIko taldeek arrastoa zabaldua izango zutela pentsatzen genuen, baina hilabete eta erdian, G-IIko talde bakar bat ez zen bigarren kanpalekutik gora igo. Eguraldiak ez zuen gehiagi lagundu batetik, eta, bestetik, lanerako ekimena ere ez zuen inork hartu",

azaldu du Albertok. Beraz, lanerako buzoa jantzi behar izan zuten uztailaren 14an. "Pobre de mí" erabatekoa izan zen eguna, alafede! "Lau ordu eta erdi aritu ginen elur bigunetan arrastoa zabaltzen, hirugarren kanpalekua ezarri ohi den lekura (7.000 m) iritsi arte. 400 metro soka finkatu genituen tarte horretan. Atzetik zetozen 9-10 lagunek zorionik beroenak eman zizkiguten".

Lan hori eginda, kanpaleku nagusira jaitsi ziren, indarrak osatzeko. Astebete osoa joan zen elurretan, asperrean, egunak joan, egunak etorri, eguraldi iragarpen kaskarrak eta Karakorumeko zero goibela bat zetozela ikusten. Azkenik, uztailaren 24-25 astebururako ostarte bat zabalduko zela iragarri zuten parteek. Tamayok bere garaian azpimarratu zuenez, "astebete elurretan pasatu eta gero, inor bere kabalean ez zen mendira aterako, baina orduan ala inoiz ez, ez zegoen beste aukerarik". Uztailaren 23an, kanpaleku nagusitik gorantz abiatu zirenean ere, elurra ari zuen artean. "Kasik goiko trasteak biltzeko asmoarekin atera ginen", gogoratu du Albertok. Elurra goi eta behe, nola edo hala, bigarren kanpalekura (6.300 m) iritsi ziren egun hartan.

"Larunbatean zuzenean laugarren kanpalekura iristea zen hasiera batean asmoa, baina arrasto guztia zabaltzeko zegoenez, zalantzak genituen hirugarrenera iritsiko ote ginen ere", gogoratu du Albertok. Alemaniako espedizio baten laguntza izan zuten tarte batean, baina lubaki gehiena eurek zabaldu zuten. Miriam Garciak inoiz esan zuen bezala, igeltsero lana egokitzen zen egun hartan ere. Atzetik, espainiarrak, australiarrak, euskaldun talde bat ere bai... Ederki kostata, hirugarren kanpalekura iritsi ziren halako batean. Denda paratu, zerbait jan eta ordu pare baten bueltan, koloretako beste dozenaerdi bat perretxiko aurkitzen zuten euren aldamenean. "Gau hartan talde batzuk elkartu ziren zuzenean hirugarren kanpalekutik gailurrera ateratzeko. Atera ere atera ziren, gauerdian. Ondo, pentasatu genuen geure artean, lepora arte behintzat arrastoa zabaldua

■ Seracattan

G-III: Historia

G-III gailurak beste mendi askok baino gehiago jasan behar izan du sistema metrikoaren bidebagekeria. Bere gailur bikia baino 83 metro baxuagoa da, ez da bera baino itsusiagoa, ezta politagoa ere, baina G-IIk urtero-urtero ehundaka mendizalaren bisita jasotzen duen bitartean, G-III umezurtz geratzen da; inork ez ditu urratzen bere elur betierekoak. 8.035 metroko garaiera du G-IIk eta 7.952 metrora goratzen da G-III. Zortzimilakoa izan edo ez izan, hortxe kokka.

1975ean espedizio poloniar bat bi mendiak igotzen saiatu zen. Hamar emakumek osatzen zuten taldea; Wanda Rutkiewicz zen espedizioburu. Beste zazpi gizonezko —poloniarak haiek ere— G-IIan saiatzekoak ziren. Bakoitzak bere aldetik eskalatzea zen asmoa, baina Pakistango agintariek soilik G-IIIrako baimena besterik ez zien eman neskei, eta, ondorioz, bat egin behar izan zuten guztiak. "Egoera deseroa eragin zuen horrek, nesken espedizio bezala iragarri zena, espedizio mistoa bihurtu baitzen", idatzi zuen Alison Chadwick-Onyszkiewicz taldekideak.

G-II eta G-III elkarri lotutako bi mendi dira. 7.400 metroan, lepo batek banatzen ditu bi tontorrak. Poloniarak G-IIko bide arruntetik igo ziren lepora arte. Hego-mendebaldeko ertzetik, alegia. Hiru kanpaleku jarri zituzten bide horretan; haizeak eta eguraldi txarrak birritan galarazi zien lepoan laugarren bat jartzea. Gailurreko ahaleginak oso behetik hasi behar izan zituzten, ondorioz.

Abuztuaren 1ean, bost mendizalek ekin zioten tontorrerako bideari: Wanda Rutkiewicz, Halina Krüger-Syrokomska, Janusz Onyszkiewicz, Leszek Cichy eta Krzysztof Zdzitowiecki. Berandu atera ziren, haize bortitza zela medio. 10:00etarako Txina eta Pakistaneko mugak bereizten diren ertzerara heldu ziren. Bidegurutzeara. Ezkerrera, 7.600 metroko tontor bat aurkitu zuten G-IIIko mendebaldeko ertza ixten. Ondorioz, bi neskek, ekialdeko ertzaren bila abiatu ziren. Hiru mutilak, berriz, G-IIko ipar-mendebaldeko aurpegira. Nesken eginahalak ez zuten

saririk izan: Wanda Rutkiewicz bi bider tematu zen ertzean gora, baina gehitxo iruditu zitzaion. Mutilek haize zakarra, izotza eta elurra aurkitu zituzten erruz G-IIko ipar-mendebaldeko aurpegian. Gerrirainoko elurretan desesperaturik, Leszek Cichy metro batzuk gora egin zuen beste aldeko ikuspegia zer-nolakoa zen ikusteko, eta harri eta zur utzi zituen lagunak: "Mutilak, gailurra da!". G-IIIrako emakumeen espedizio entzutetsuan, "hiru gizonezko G-IIko gailurra zapaldu dute", ironizatu zuen Chadwick-Onyszkiewicz.

Ez zuten erabateko etsia hartu, ordea. G-IIIan gailurreko bigarren ahalegina egin zuten Wanda Rutkiewicz, Alison Chadwick-Onyszkiewicz, Janusz Onyszkiewicz eta Krzysztof Zdzitowiecki. Hirugarren kanpalekura bidean, beste aukera bat gorputz hartzen hasi zen: erdiko couloirra. Ekialdeko ertza baino bide serioagoa izan zitekeela aurrikusi zuten, baina gorantz egiteko aukera gehiago eman zitzaie.

Abuztuaren 11ko goizaldean heldu ziren lepora (7.400 m). Denda kozkorra paratu, su txikia, janaria eta lotarako zakuak sartu eta zirt edo zart egiteko tenorea iritsi zen. "Wanda, azkar, erabaki bat!", eskatu zioten beste hiru taldekideek. "Couloirretik, uste dut", bota zuen, erabateko ziurtasunik gabe. Elur ezegonkorra, hortz, tximinia, harkaitz kontrafuerte zenbait, eta gailurreko ertzerara iritsi ziren lau mendizaleak. "Harkaitz solteko laban ahoa" bezala definitu zuten ertz hori. Ezkerragotik hartu zuten, eta azken metroetan soka metro batzuk finkatuta, arratsaldeko 18:00etan tontorrera heldu ziren. Ez ziren orduak paisaia ederresten denbora alferrik galtzeko. Behera lehenbailehen. Tentu handiz, itzal luzeak iluntasunarekin urtzen diren ordu arriskutsuetan heldu ziren lepoan jarritako kanpalekuaren babesera, gaueko 21:30ean. Biharamonean kanpaleku nagusiraino jaitsi ziren.

Geroztik, umezurtz jarraitzen du G-IIIk. □



■ Beloki G-IIIko gailurrean

ARGAZKIA: ALBERTO INURRATEGUI



ARGAZKIA: JON BELOKI

■ Azken korridorean gora

edukiko dugu bihar eta azken saio horretarako indarrak gorde ahal izango ditugu. Bi ordu geroago, ordea, bueltan ziren atzera. Bidea ez omen zuten baldintza onetan aurkitu. Gure gozarena putzuan barrena".

Laugarren kanpalekura bidean izan zituzten gora-behera batzuk bide egokia aurkitzen. Batetik saiatu, bestetik saiatu eta bietan bueltan hartu beharra. "Normalean igotzen den lekua kargatuta zegoen, elur-jauziak erortzeko arriskuarekin. Hortaz, ezkereragotik hartu genuen, plaka batzuen erditik, baina han ere kranpoiek berehala haitza jotzen zuten eta ez zen konfiantza gehiegirik ematen zuen terrenoa. Azkenean, hala ere, bilatu genuen bide egokia". Laugarrenerako tarte horretan 150 metro soka ere finkatu zituzten.

■ KORRIDORE TENTEA

Uztailaren 26an, goizeko 01:00etan jo zuten iratzargailuak, baina gosaria eta azken orduko prestaketak tarte-ko, 03:00ak ere ez ziren urrun abiatu zirenerako. Lepoan itxura antzean aurkitu zuten elurra. Egunsentia emeki-emeki joan zen argitzen, G-III tontorrera eramango zituen 500 metroko korridorea parez-pare erakusten ziela. "Behetik gero barrutik baino itxura hobea zuen. Oso luzea ere ez zuen ematen, eta poloniarren informazioaren arabera zailak ziren pasarteek ere behetik begiratuta errazagoak ematen zuten". Ustea, korridoreko elurra bezain ustela, beste behin.

■ Gailurretik hurbil



ARGAZKIA: JON BELOKI

Sokari lotu gabe abiatu ziren korridorean gora, baina aldapa gero eta tenteago jartzen joan zen eta poloniarrek deskribatzen zuten lehen harkaitz irtengunera iritsi zirenean, bilera bat finkatu eta sokari lotzea erabaki zuten. Jon Belokik hartu zuen sokaburua: "Elurretan ostikoka, kranpoi muturrak ondo sartzen saiatu nintzen, luzearen zatirik bertikalenera iritsi arte. Elurrez tapizatutako harkaitz harresitxo baten azpian nengoen, erraminta punttak sartzeko helduleku handirik gabe, erorikoa babesteko aukera askorik gabe. Kezkaten hasi nintzen. Goiko korridorea harrapatu arteko 15-20 metro besterik ez ziren, baina ziurtasunez gainditzeko modurik ez nuen ikusten. Pioletarekin elurretan arramazka ibili nintzen, erregeleta txiki bat aurkitu nuen arte, eta gero beste bat. Hala, pixkanaka jarraitu nuen gorantz, irtengunea gainditu arte. Tarte horretan, iltze bat eta erabat ajatutako kordino bat aurkitu nituen. Poloniarren arrastoak. Handik gora bidea pixka bat samurtzen zen".

Korridoreak 50º inguruko elur maldekin jarraitzen zuten. Elur sakona eta ezegonkorra. Ensanblean igo ziren zati horretan, sokak finkatzeko modurik ez baitzegoen elur hartan. Jaitsierari begira mamu batzuk agertzen ere hasi ziren, rapel ziurrik jartzeko aukerarik ez baitzuten ikusten. "Hala, soinu oso itsusia ateratzen zuten elur plaka batera ailegatu ginen. Han erabaki zuten Tamayok buelta hartzea", oroitu du Albertok. Sestaoarrentzat gogorra izan zen erabakia, baina une horretan zirt edo zart egin beharra zegoen. "Terreno hartan ezin zen deskuidatu, eta ez nuen nekatuegi jaitsi nahi". Tamayok besteko pena dute bi taldekideek gailurreko poza hirurek konpartitu ez izana. "Jakin izan balu distantzia erreala zein zen, jarraituko zukeen, baina korridorearen barruan ikuspegia asko aldatzen da; nekea, zalantza, faktore asko elkartzen dira", dio Albertok.

■ ZALDIKO MALDIKOAN

Inurrategik eta Belokik jarraitu zuten, luzeka txandak emanez. "Izugarri kosta zitzaigun gailurrerako tarteak. Aldapa gutxiago espero genuen eta juxtu han goian inon baino aldapa handiagoa. Elurretan ere gerriraino sartzen ginen, azpiko harkaitza ukitzeraino. Pixkanaka, harkaitz bloke bakarti batera iritsi ginen, eta han muntatu genuen bilera". Handik gora, gaitzerdi, elur baldintza hobexegoak aurkitu zituzten: gerriraino beharrean, belauetaraino besterik ez ziren hondoratzen. Korridorearen amaierako lepora iritsi ziren laister. "Haizeak gogor astintzen zuten han goian. Antzeman genion gailurrerako askorik ez zela geratzen, eta asmatu genuen. Zeharka-zeharka, beste soka luze batean iritsi ginen mendiaren puntu gorenera", azaldu du Jon Belokik. Albertok gailurreko erlaitzean burua atera zuenerako, Beloki zaldiko-maldikoan zegoen, gailurrean eserita, alde batera eta bestera sekulako amildegia zituela. Polita izan zen gailurra, lekua eta momentua. Goizeko 10:30ak ziren.

Tontorretik mira eginda ikusi zuten Gasherbrum IVko ipar-ekialdeko ertza. Elurrez gainezka, kargatuta erabat. Eder, oso eder, baina arriskutsu, oso arriskutsu. Dударik gabe, ez zen G-IVa igotzeko denboraldia izan. Kontuz-kontuz jaitsi ziren laugarren kanpalekura, rapel pare bat eginez eta gainerakoa destrepatuz. Pauso bat gehiago emateko gai ez zirela ailegatu ziren dendara, leher eginda. Tamayok elurra urtuta zuen ordurako. Lau eguneko igoera izan zen, eta lau egunak gogorrak izan ziren oso.

Espedizioa amaiturik, Hushe bailaran beheara, hausnarrean, poza zuten batetik, "eguraldia izan zen bezalako izanda, esku hutsik behintzat ez ginelako bueltatu", baina poz urardotua zen, G-IVa baitzen benetako helburua. "G-III osagarria zen, aklimatatzeko mendia". Tour on bat egiteko Giroa. "Hala ere, G-IVa han geratu da, hurrengo baterako badakigu non dagoen". Ezagutu ere gehixeago ezagutzen dute orain. □

ESKOLA ETA UREZTATZE SISTEMA, ABIAN

BALTISTAN, Pakistango eskualde menditsua, ia bigarren herria da Alberto Inurrategi, Jose Carlos Tamayo, Jon Beloki, Jon Lazkano, Juanjo San Sebastian, Kike de Pablo eta beste hainbat mendizalerentzat, estima berezia sentitzen baitute lurralde idor haiekiko. Baltistanen ez daude soilik K-2, edo Gasherbrum mendiak, edo Baltoroko katedraleak, edo Chogolisa, edo Amin Brakk;



■ Machulun eskola eta Ureztatze sistemaren inaugurazio festa



■ Mendi eskola

Ez da mendia bakarrik Baltistani lotzen dituen; jendea da eta urte askotako adiskidetasuna, lokarri estuagoak sortu dituen: Felix Inurrategi Mendiko Eskola adibidez, Machulun, Hushe bailarako herrietako batean.

han bizi dira, baita ere, Rustam, Ibrahim eta beste hainbat baltiar, euren bizitzako unerik intentsoenak konpartitu dituzten lagun apalak.

Bi egun gogor behar izan zituzten Hushera jaisteko. Gondogoroko lepoa (5600 m) eguraldi txarrarekin eta hotzarekin gainditu zuten, igarobidea material eskas samarrarekin egin ohi duten zama eramaleentzat baldintza gogorretan. Hala iritsi ziren Jiuspaneko oasira, bi hilabetetan elurra eta glaziarra besterik ikusi gabe, aurreneko toki berdea, eta Jiuspanetik Hushera. "Han zegoen zain gure lagun Rustam, bi jeepekin, Machulura, bere etxera eramateko". Kanden, bailarako beste herrietako batean, harri eta lokatz oldeek eragin duten hondamendiaren lekuko izan ziren hiru mendizaleak.

"Arratsaldean, jada Machulun, harrera beroa eskaini ziguten Eskolaren atarian, bi urtetan beharrean jardun diren lana erakusteko irrikitan. Eraikin handi horretan eskolaren bulego, material eta antolakuntza osoak izango du lekua, eta proiektuak lagunduko du baltiarren mendiko lana ezagutarazteko eta duintzeko". Gure mendizaleek, halako harrera jendetsuetara batere ohitu gabeak izaki, ahal bezala eutsi zioten jendearen berotasunari.

Uztailaren 31n, Jon Mancisidor, BBKko zuzendaria, eta Juanjo San Sebastian iritsi ziren Machulura. Eskolaren eta Ureztatze Proiektuaren inaugurazioan present egon nahi zuten. Ureztatze Sistemak gero eta maizagoak diren lehorte urteetan ura iristarazten du ortuetara, eta herri hauen uzta eta etorkizuna euriaren eta zoriaren baitan ez egotea ahalbidetzen du.

"Abuztuaren 1ean, ekitaldi ofizialean izan ginen, bertoko agintariekin batera; Jonek eta Albertok moztu zuten errekatik herriaren goikaldeko ubideetaraino ura daraman bonbetara sarbidea galarazten zuen zinta". Ureztatze Sistema, Eskolarekin batera, Felix Inurrategi Fundazioaren egitasmo nagusietako bat da, eta hain zuzen proiektuaren bigarren fasea inauguratu zuten igandeko ekitaldian. "Hitzaldi batzuk izan ziren, nahiz eta gu halakoetara ez oso emanak izan; eskerrak Jon Mancisidorrek, bere jakituriarekin, atera gintuen ataka hartatik", zioten hiru mendizaleek artean lotsagorrituta. Gero, Eskolan bertan egin zuten bazkari jendetsuarekin eman zituzten amaitutzat ekitaldi ofizialak.

Abuztuaren 6an iritsi ziren Bilbora, bi hilabete oso intentsoren ondoren. Badakite, hala ere, laster itzuliko direla: Baltistanen beti daude proiektu berriak. Hala mendian, nola bailaran. □

G-III. SEGUNDA ASCENSIÓN

Alberto Inurrategi, Jon Beloki y Jose Carlos Tamayo se habían fijado dos objetivos, dos montañas que reciben escasas visitas en el Karakorum: el G-III (7952), y sobre todo, el majestuoso G-IV (7925), por su arista noreste, vía que siguieron los primeros ascensionistas (Walter Bonatti y Carlo Mauri) hace ya 46 años y que posteriormente no ha sido repetida. La temporada, sin embargo, no dio opción alguna. Las constantes nevadas dieron al traste con todo el trabajo realizado en la muralla de seracs que da acceso al collado noreste, ya que borraba una y otra vez la huella abierta. Sabedores de que necesitarían al menos 6-7 días para realizar un intento serio al G-IV (ventana que preveían imposible), y temiendo perder también toda opción en el G-III, encaminaron sus esfuerzos hacia esta última cima. Después de casi 10 días de constantes nevadas que dejaron la montaña aun mas cargada de nieve, el 23 de julio iniciaron la ascensión. Después de 4 duras jornadas, en las que tuvieron que abrir huella, el 26 de julio, Inurrategi y Beloki consiguieron llegar a la cumbre del G-III. El ultimo corredor de 500 metros, principal escollo de la ascensión, resulto mas dificil de lo previsto, con pendientes de mas de 55° y nieve inestable. Se trata de la segunda ascensión del G-III, Después de la protagonizada por los/las polacos/as Wanda Rutkiewicz, Alison Chadwick-Onyszkiewicz, Janusz Onyszkiewicz y Krzysztof Zdzitowiecki.

FICHA TÉCNICA

Gasherbrum III
Altitud: 7952 m

Primera ascensión: Wanda Rutkiewicz, Alison Chadwick-Onyszkiewicz, Janusz Onyszkiewicz y Krzysztof Zdzitowiecki. 11 de agosto de 1975.
Única ascensión hasta la fecha.

Espedicionarios: Alberto Inurrategi, Jon Beloki, Jose Carlos Tamayo.
Fecha de partida: 3 de junio.

Llegada al CB: 17 de junio.

G-IV: Abrieron la ruta hasta los 6700 metros, en la denominada Seracatta degli Italiani. Escasos 200 metros les separaron del plateau superior que da acceso al collado noreste.

G-III: Instalaron cuatro campamentos, todos ellos comunes al G-II, ya que ambas montañas comparten ruta hasta el collado (7400 m) que separa sus dos cimas. C-I (6000 m), C-II (6300 m), C-III (7000 m), C-IV (7400 m).

Cima: 26 de julio, sobre las 10:30 de la mañana.



■ Gasherbrum IV, III, II